



Bekak  
Iberdrola - Arte Ederren  
Bilboko Museoa

2024-2025

bilbao **museoa**

 Fundación  
**IBERDROLA**  
**ESPAÑA**

## Dialdia

Iberdrola Fundazioak eta Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioak (aurrerantzean, museoa) bi beka emateko deialdira deitu dute, museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailean garatzeko. Prestakuntza beka horiek xede hauek dituzte:

- Laneratzea sustatzea eta ikasleak testuinguru profesionalera hurbiltzea.
- Kontserbazio eta zaharberritzearen esparrurako prestakuntza eta esperientzia handitzea, jakintzak eta trebetasun teknikoak garatuz eta indartuz.
- Kontserbazioaren eta zaharberritzearen egungo irizpideak eta metodologiak ezagutzea eta aplikatzea.
- Ikerketarako gaitasunak sustatzea, ikuspegi zientifikotik.

Beken onuradunek honako jarduera hauek gauzatuko dituzte:

- Museoaren bilduma kontserbatzeko eta zaharberritzeko tratamenduak egitea.
- Egindako lanak dokumentatzea.
- Mailegu-proiektuetan eta aldi baterako erakusketetan parte hartzea.
- Ikerketa teknikoko lanak.

## Ezaugarriak

### Iraupena

Programa 2024ko irailaren 1an hasiko da, eta hamar hilabeteko iraupena izango du.

Beka behin bakarrik luzatu daiteke, beste hamar hilabetez. Horretarako, Museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailak eta zuzendaritzak aldeko txostena egin beharko dute, amaiera-data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

### Ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara.

### Oporrak

Oporraldi hauek ezarri dira: 2024ko abenduaren 26tik 2025eko urtarrilaren 5era, eta 2023ko apirilaren 14tik apirilaren 20ra arte. Horrez gain, 2024ko eta 2025eko lan-egutegiko jaiegunak hartuko dira.

Bestelako baimenak edo ez-etortzeak baimendu beharko dira, eta museoko Giza Baliabideen Sailari jakinarazi.

## Diru-kopurua eta oinarri juridikoa

15.000 € gordin, hamar hilabetean ordainduta, hil bakoitza amaitu ondoren. Museoak hilerok kenduko ditu indarreko legeriak ezartzen dituen zenbatekoak.

Bekaren esleipendunari ordaintzen zaion kopuruak ez du izango inola ere soldata- edo ordainsariizaera.

Museoak istripu-aseguru bat kontratatuko du bekadunentzat, gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, bai eta erantzukizun zibileko aseguru bat ere, programak irauten duen bitartean gauzei edo pertsoneri eragin ahal dizkieten kalteak estaltzeko.

Programan parte hartzeak ez du inola ere lan-harremanik sortuko bekaren onuradunaren eta museoaren artean. Hortaz, harremana egituratzeko, bi aldeek akordio pribatu bat sinatuko dute.

## Dialdiaren hasiera

2024ko apirilaren 29tik maiatzaren 19ra. Ez da onartuko data horietatik kanpo aurkeztutako eskabiderik.

## Baldintzak

- Arte Ederretako lizentziatura edo gradua izatea, kultura-ondasunak kontserbatzeko eta zaharberritzeko espezialitatearekin (esaterako, pinturan, paperean eta eskulturan), edo Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko lizentziatura edo gradua.
- Eskatutako unibertsitate-titulua lortzera bideratutako ikasketak 2017-18 ikasturtetik (barne) aurrera amaitu izana. Epeari dagokionez, diplomatura, lizentziatura edo gradua amaitu izana baino ez da aintzat hartuko; izan ere, ez da kontuan hartuko doktorego ikastaroen edota graduondoko bestelako ikasketen amaiera data.
- Batez besteko nota berariaz adierazten duen espediente akademikoa. Atzera botako dira oso ongi notatik beherako batez besteko balorazioa duten espediente akademikoak.
- Ezagutza aurreratuak argazkigintzan eta irudien tratamendu digitalean.
- Hizkuntzak: ingelesa. Aintzat hartuko da beste hizkuntza batzuetan ezagutzak izatea.

## Eskabideak formalizatzea

Museoaren webgunean (**hemen**) horretarako prestatutako online formularioaren bidez. Galderarik edo zalantzarik izanez gero, deitu 94 439 60 60 telefonoari (Giza Baliabideen Saila).

### Agiriak

- NANA edo dokumentu baliokidea.
- Curriculum vitae. CVan hizkuntzak dakizkitela adierazten dutenek hizkuntza-erakundeek edo hizkuntza-eskola ofizialek egindako dagozkion ziurtagiriak edo baliokideak ere aurkeztu beharko dituzte.
- Batez besteko nota berariaz adierazten duen espediente akademikoa.
- Gomendiozko bi gutun, aktiboan dauden eta hautagaiari ikasgaiak eman dizkien irakasleek sinatuta.
- Memoria bat, non adieraziko den zer arrazoi dituen hautagaiak bekara aurkezteko eta zer emaitza lortu nahi dituen programarekin. Idazteko, honako arau hauei jarraitu beharreko zaie:
  - Luzera: 5 orrialde
  - Letra-tipoa: Arial Narrow
  - Letra-tamaina: 12 puntu

Eskatutako agiriak fitxategi bakarrean bidaliko dira, pdf formatuan. Museoak, beharrezkotzat joz gero eta edozein unean, eskatutako agirien jatorrizkoak eska ditzake.

## Hautapen-prozesua

Eskatutako agiriak ezarritako epearen barruan aurkezten ez dituen hautagaiari hiru eguneko epean akatsa konpontzeko eska dakioko. Epe hori amaitzean, atzera botako da automatikoki.

Eskabideak 100 puntuko gehienekoarekin balioztatuko dira, jarraian adierazitako faseen eta puntuazioen arabera.

### Lehenengo fasea: 60 puntu

- Curriculum vitaearen eta espediente akademikoaren balorazioa: 40 puntu.
- Prestakuntza-merezimenduak: 25 puntu.
- Lan-merezimenduak: 15 puntu.
- Memoriaren balorazioa: 20 puntu.

Lehenengo fasea gainditzeko, gutxienez 40 puntu lortu beharko dira.

### Segunda fase: 40 puntos

Elkarrizketa pertsonala. Horretarako Azterketa eta Balorazio Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Gilermo Zuaznabar Uzkudun jaunak, kontserbatzaile nagusiak, zuzenduko du eta Leire Jaureguibeitia Cayrols andrea, gerentea, idazkaria izango da. Batzordekideak izango dira Javier Novo González jauna, Kontserbazio eta Ikerketa koordinatzailea, eta María José Ruiz-Ozaita Ruiz andrea, Kontserbazio eta Zaharberritze Saileko burua.

Batzarkide guztiek besteren esku utz ditzakete beren funtzioak, zuzenean gauzatu ezin dituztenean.

Hautagaien aurretiko hautaketan berdinketa egonez gero, batzordeko buruak izango du kalitatezko botoa.

Museoa zuzenean jarriko da harremanetan bigarren fase horretarako hautatu dituztenekin. Gainera, bere webgunean (**hemen**) hautatuen zerrenda argitaratuko du, eta elkarrizketaren eguna eta ordua adieraziko ditu.

### Ebazpena

Hautapena amaitu ondoren, Azterketa eta Balorazio Batzordeak titularren eta ordezkoen zerrenda egingo du, haien puntuazioen ezaugarriak zehatz-mehatz azalduta, hasieran edo programaren indarraldian gerta litezkeen uko-egiteei erantzuteko, eta 2024ko ekainaren 17tik aurrera museoaren webgunean (**hemen**) argitaratuko da. Ondoren, museoak ebazpena jakinaraziko die hautatutako pertsonari, eta bekak esleitu gabe utzi izango ditu, osorik edo zati batean.

### Bateraezintasunak

Deialdi honen peko laguntza jasotzea ez da bateragarria izango Estatuko edo Europako funts publikoekin edo pribatuekin finantzatutako beste edozein beka edo diru-laguntzarekin, ez eta interesdunen kontratu edo estatutu bidezko lotura dakarren inongo soldatarekin, eta bidegabeki jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira.

Beka behin bakarrik jaso ahalko da.



## Betebeharrak

Nahitaezkoa da beka idatziz onartzea, hautatuei emango zaien posta elektronikoko helbidearen bidez, esleipenaren jakinarazpena jaso eta bost egun naturaleko epean. Egin ezean, uko egin dela ulertuko da, eta ordezkoen zerrendako hurrengo hautagaiari emango zaio beka.

Beka onartzeak berekin dakar museoarekin hitzarmen pribatua sinatzea, zeinaren bidez betebeharrak hauek onartzen diren:

- Konfidentzialtasun-konpromisoa sinatzea.
- Hala Iberdrolari nola museoari baimena ematea beka jaso dutenen izenak nor bere webguneetan eta memorietan argitaratzeko.
- Programan zehaztutako zereginak eta bekaren xedea betetzeko egokiak diren jarduerak gauzatzea.
- Laneko segurtasuneko eta higieneko arauak betetzea, nahitaez eta berehala bete behar baitira, beren eta museoan lan egiten duten pertsonen osotasun fisikoari eragiten baitiete.
- Oinarrietan zehaztutako ordutegia betetzea.
- Eta, orokorrean, museoak oinarri hauetan adierazitako baldintzei buruz har ditzakeen erabakiak onartzea.

## Bekaren garapena

Onartutako hautagaiak museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Saileko buruaren gain begiradapean jardungo du, eta azken horren ardura izango da hautagaiaren tutoretza eta jarraipena egitea eta bi txosten idaztea: lehenengo bost hilabeteetan gauzatutako jarduerari buruzko justifikazio-txosten labur bat eta behin betiko txostena, programa amaitzean.

Beken titularrek amaierako memoria aurkeztu beharko dute.

## Mugikortasuna eta trukea

Beka honen esparruan, museoak eta Iberdrolak titularren mugikortasuna eta trukea sustatuko dute, Prado Museoarekin hitzarmena eginez. Museoak ez du bermatzen hitzarmen hori gauzatuko denik; hala, hitzarmena egitea museo-erakundeetako bakoitzak mugikortasuna eta trukea egiteko dituzten aukeren mende geratuko da.

## Beka etetea eta ezeztatzea

Bekaren titularrak bere betebeharrak betetzen ez baditu, museoak beka amaitutzat eman ahal izango du, ezertan eragotzi gabe egokitu lekizkiokoen beste ekintza batzuk. Ezinbesteko arrazoiren batengatik, gaixotasunagatik eta/edo gurasotasunagatik, beka atzeratzea edo etetea aurreikus daiteke. Atzeratzeko edo etetea beharrezkoa izango da hori justifikatuko duten berme dokumentalak aurkeztea. Etenaldia amaitu ondoren, aukera egongo da hori berrikusteko eta, behar izanez gero, behin betiko bihurtzeko, atzeratzeko edo etetea arrazoiek irauten badute.

Hala behin betiko etena egitean nola atzera botatzean, bekaren titularrak jasotako zuzkiduraren % 50 itzuli beharko du, horretarako ezarritako prozeduraren arabera.

## Oinarriak aldatzea

Museoak oinarri horiek aldatzea erabaki ahal izango du eta, horretarako eta baliozkoa izateko, nahikoa izango da bere webgunean argitaratzea ([hemen](#)).

bilbao **museoa**

